



Aktibitatearen gida

Prestakuntza-jarduera mistoa

TALDE LANA ERAKUNDE SANITARIOETAN



INDIZE

<i>Sarrera</i>	<i>2</i>
<i>Helburu nagusiak.....</i>	<i>3</i>
<i>Objetivos espezifikoak.....</i>	<i>3</i>
<i>Norentzat.....</i>	<i>4</i>
<i>Egitura eta edukiak</i>	<i>4</i>
<i>Ikastaroaren metodologia.....</i>	<i>6</i>
<i>Ebaluazio irizpideak.....</i>	<i>6</i>

SARRERA:

Lan Kliniko eta asistentzialaren disziplina ezberdinetako taldeetan antolaketa (gero eta espezializatuagoak eta zatikatuak) eta gaixoentzako zainketa eta arretaren konplexotasun gero eta handiagoak, beharrezkoa egiten du taldean lan egitea. Hau da, profesional ezberdinen koordinazio eta kooperazio eraginkorrak.

Helburu amankomun bat izateak eta indarrak bateratzeak, asistentziaren kalitatea errazten du eta lanean giro egoki bat sustatzen du, eta horrek bai langileen bai gaixo eta beren senideen ongizatean ondorio nabarmenak ditu.

Negoziatu eta erabaki ahal izateko gaitasuna, autoerregulatzeko, helburu amankomunera jotzea, egoera konplexuak maneiatzea... hori guztia eguneko esparru sanitarioan dimentsio berri batean kokatzen da. Baldintzaren bat ez emateak, hau da, talde lana eraginkorra ez izateak, pazienteari ematen zaion arreta egokia ez izatea sortarazi dezake. Esparru horretan egiten diren heziketa ekitaldiek talde lana ulergarriagoa izatea sustatzeko, talde bakoitza osatzen duten langile ezberdinen rolak hobeto ezagutzeko eta komunikaziorako estrategia ezberdinak garatzeko lagundu dezakete.

Horren guztiaren helburu nagusia, ondorioz, pazienteak jasotzen duen arreta hobetzea da.

HELBURU OROKORRA:

Helburu orokorra hau da: **Osakidetzako langileen komunikazio eraginkorra ahalbidetzen duten konpetentziak, abileziak eta jarrerak hobetzea, pertsonen arteko erlazio egokiak lortzeko, gatazken agerpena galerazteko eta erakundeko emaitzetan eraginkortasun gehiago izateko.**

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

Ikastaroak emango dizkien ezagutzei esker, ikasleek hau lortuko dute:

- Komunikazio zehatz eta objektiboaren garrantzia ulertzea. Maneiatu behar diren egoerei buruzko aburuak eta balorazio subjektiboak galeraziko dira horretarako, sortutako emozioen gertaera ezberdintzeaz gain. Horrekin, ezarritako komunikazioa helburuek eta balioek, eta ez bihozkaidek, gidatuko dute.
- Teknologia berriek komuniakzioaren esparruan duten inpaktuari buruz hausnartzea, eta beren arrisku eta aukerak identifikatzea.
- Komunikazioaren patroi pertsonalak aztertzea, eta bere berehalako komunikazioara aplikatu daitezkeen hobekuntza eremuak eta sendotasun pertsonalak identifikatzea.
- Langile/gaixo/erabiltzaile, langile/langile interakzioan dagoen komunikazioaren maneiu eraginkorrerako tresnen eta baliabideen maneian abileziak erakustea (galdera irekiak, zuzenduak, itxiak, ikerketazkoak, argigarriak, alderatzaileak...).
- Pixkanaka enpatiarako gaitasuna handitzea, "enpatizatzea" (mintzakideak transmititu nahi duena ulertzea) eta "kidetzearen" (bestearen egoerarekin identifikatzea) artean ezberdinduz, pertsonaren egoera emozionala hartu eta era osasungarri batez kudeatzeko.
- Informazio era ulergarri batez antolatzea eta itzultzea. Horretarako, mezua interakzio konketuaren beharrera eta oinarritzko helburuetara moldatuko da.

NORENTZAT:

Osakidetzako profesionalak, edozein kategoria edo arlotakoak.

EGITURA ETA EDUKIAK:

1. EGOKITZAPENA: egokitzapenerako dinamika. Aurkezpenak, hautemateak eta aurreikuspenak.
2. MARKUA-TESTUINGURUA ZEHAZTEA.
3. EDUKIAK:
 - 3.1. Oinarrizko jarrerak eta gaixoarekiko jarrera hartzea:
 - Gaixoaren onarpena
 - Errespetua eta erantzunkina
 - 3.2. Komunikazio prozesuaren osagaiak eta zaratak:
 - Hartzaile eta emailearen zaratak
 - CV eta CNV arteko koherentziak
 - Ingurunearen eragina. Langilearen rola gaixoaren rolaren aurka
 - 'Feedback'-a komunikazioaren elementu ezberdintzaile bezala, informazioaren aurrean
 - 3.3. Komunikazio estiloak:
 - Estilo proaktiboa erreaktiboaren aurka

3.4. Oinarrizko abileziak:

- Galdetzearen eta erantzuten jakitearen artea
- Entzute aktiboa
- Enpatia
- Parafraseatzea eta argibideak "intuizioaren" aurrean
- Feedback' eraginkorra (kritikak, laudorioak...) eta ahalduntzea
- Asertibitaterako beste tresnak

4. ITXIERARAKO SAIA:

4.1. Ekimen Plana

4.2. Itxierarako dinamika

4.3. Balorazioa

IKASTAROAREN METODOLOGIA

Azalpen teorikotan oinarritutako metodologia, parte-hartzea biziki sustatzeaz gain, parte-hartzaile bakoitzaren hausnarketa eta ekintzarako. Bertan, kasu praktikoak landuko dira eta horretarako bankako ariketa pertsonalizatuak eta taldeko dinamikak egingo dira.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ikastaroaren ziurtagiria eskuratzeko, aurrez aurreko gutxienezko parte-hartzea % 80koa izan beharko da. Parte-hartze hori sinaduren kontrolaren bidez egiaztatuko da, saio bakoitzaren bai sarreran bai irteeran. Gainera, aurrez aurrekoa ez den atalerako proposatzen diren ariketak derrigorrez egin behar dira. Finkatutako eta ikasle bakoitzak lortutako helburuen etengabeko ebaluazioa egingo da.